

2022-2023 ikasturtea

# Vitoria-Gasteizko Haurreskolak Partzuergoaren Haur Eskoletako eta Udalaren Haur Eskoletako matrikulazioa

2020an, 2021ean eta 2022an jaiotako haurrak



# Aurkibidea

Ezaugarri orokorrak	5
Kokapena eta harremana	7
Eskaera izena emateko epe orokorrean aurkeztuz gero	8
Eskaera izena emateko epea bukatu ondoren aurkeztuz gero	10
Eskaera-orria	12
Eskaera-orria eta dokumentazioa aurkezteko tokiak	14
Baremoa	15
Haurreskolak Partzuergoa	18
Udalaren Haur Eskolak	20

## EGILEA:

Haurreskolak Partzuergoa / Eusko Jaurlaritza eta Hezkuntza Zerbitzua / Vitoria-Gasteizko Udala

## DISEINU GRAFIKOA ETA MAKETAZIOA:


La Debacle S.L.

## INPRIMATZAILEA:

Héctor Soluciones Gráficas

D.L.: VI 134-2021

[www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza](http://www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza)



Liburuxka honetan, Vitoria-Gasteizko titulartasun publikoko Haur Eskolen funtzionamenduari buruzko informazioa ematen da, eta, horretaz gain, sartzeko baldintzei eta 2022-2023 ikasturterako matrikulatzeko prozedurari buruzko bai eta kasu bakoitzari dagozkion kuotei buruzko informazioa ere.

Hala ere, **SARS-CoV-2 izeneko koronabirusak eragindako osasun-krisia** eta haren transmisioa murrizteko unean-unean hartzen diren neurriak direla eta, baliteke bertan zehazten diren alderdietako bat edo batzuk aldatu behar izatea.

## Informazio-hitzaldiak

Haur Eskola publikoetan izena emateko eta matrikulatzeko prozedurari buruzko informazio gehiago nahi baduzue, informazio-hitzaldi hauetara joan ahal izango zarete:

- 2022ko apirilaren 7an, osteguna, 18:30ean, Salburua Gizarte Etxeko Ekitaldi Aretoan.
- 2022ko apirilaren 11n, astelehena, 18:30ean, Aldabe Gizarte Etxeko Ekitaldi Aretoan.

Bi hitzaldietan zeinu-hizkuntzako interpretea egongo da.

Horrez gain, informazio guztia eskuragarri izango duzue honako webgune honetan: [www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza](http://www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza)

Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak ere zuen esku jartzen du [eskolahh@vitoria-gasteiz.org](mailto:eskolahh@vitoria-gasteiz.org) helbide elektronikoa, edozein kontsulta egiteko.





# Ezaugarri orokorrak

Vitoria-Gasteizen, titulartasun publikoko  
Haur Eskolen eskaintza osatzen dute:

Haurreskolak  
Partzuergoaren  
**19** Haur Eskolak:  
2021ean eta  
2022an jaiotako  
haurrentzat

Udalaren  
**5** Haur Eskolak:  
2020an, 2021ean  
eta 2022an jaiotako  
haurrentzat

Eskolan hasteko, 2022. urtean  
jaiotako haurrek 16 aste beteta  
izan behar dituzte.



## Egutegia eta ordutegia:

Haurreskolak Partzuergoaren Haur  
Eskolak eta Udalaren Haur Eskolak  
**2022ko irailetik 2023ko uztaiera**  
irekita egongo dira.

Matrikulatutako haurrak egunean  
gehienez ere zortzi ordu egon ahal  
izango dira eskolan.


## Eskolan hastea:

Haur guztiak **progresiboki eta  
banaka-banaka hasiko dira eskolan,**  
harrera egiteko eta eskolara ohitzeko  
prozesu baten bidez; familiak  
zuzenean hartuko du parte prozesu  
horretan.

Eskaneatu QR  
kodea zure  
mugikorrarekin







EUBA EREKOTARIO  
EUBA AMBIBIO  
EUBA SAN SEBASTIAN OROBITA

PARQUE ZADORRA ATXA

PARQUE ZADORRA ABETXUKO

14

9

11

8

10

12

3

7

13

5

4

ZONA AVENIDA

16

6

CENTRO HISTORICO

18

19

15

ENSANCHE

17

20

6

CAMPO DE LOS PA...

# Kokapena eta harremana

- Haurreskolak Partzuergoaren Haur Eskolak
- Udalaren Haur Eskolak

2020AN JAIOTAKO HAURRENTZAT

2021EAN ETA 2022AN JAIOTAKO HAURRENTZAT



	HAUR ESKOLAREN IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA		
ERDIALDEA	1	<b>ARANA</b>	Gurutze Berdea, 6 (Arana)	945 281 411	●
	2	<b>ARANBIZKARRA</b>	Jose Pablo Ullibarri, zk.g. (Aranbizkarrak)	945 206 438	●
	3	<b>EL PILAR</b>	Caracas, 6 (Pilar)	945 223 697	●
	4	<b>HAURTZARO</b>	Santa Maria kantoia, zk.g. (Alde Zaharra)	945 162 642	●
	5	<b>TXAGORRITXU</b>	Gasteiz Hiribidea, 85-A (Txagorritxu)	945 242 333	●
	6	<b>TXIMELETA</b>	Ricardo Sacristán, 38 (San Martin)	945 224 557	●
	7	<b>ZARAMAGA</b>	Nafarroako Errege-erreginak, 16-b (Zaramaga)	945 162 653	●
IPARRALDEA	8	<b>GLORIA FUERTES</b>	Gernikako Arbola, 2 (Arriaga-Lakua)	945 252 361	●
	9	<b>IBAIONDO</b>	Bartzelona, 23 (Ibaiondo-Lakua)	945 197 861	●
	10	<b>LAKUABIZKARRA</b>	Baiona, 14 (Lakua)	945 197 929	●
	11	<b>LANDABERDE</b>	Zarautz, 6 (Lakuabizkarrak)	945 175 257	●
	12	<b>L. LEJARRETA</b>	Blas de Otero, 12 (Lakua)	945 162 654	●
	13	<b>SANSOMENDI</b>	Valentin de Foronda, 4 (Sansomendi)	945 162 646	●
	14	<b>VIRGEN BLANCA</b>	Plaza Nagusia, zk.g. (Abetxuko)	945 204 908	●
MENDEBALDEA	15	<b>ARIZNABARRA</b>	Ariznabarra, zk.g. (Ariznabarra)	945 235 225	●
	16	<b>GALTZAGORRI</b>	Nazio Batuen hiribidea, 8 (Zabalzana)	945 358 095	●
	17	<b>MARITURRI</b>	Leza, 6 (Zabalzana)	945 429 108	●
	18	<b>ORTZADAR</b>	Gurutze Gorriaren ibilbidea, 8 (Zabalzana)	945 357 827	●
	19	<b>ZABALGANA</b>	Ilustrazioaren hiribidea, 46 (Zabalzana)	945 162 637	●
HEGO-EKIALDEA	20	<b>GURUTZMENDI</b>	Jauregilanda kalea, zk.g. (Adurtza)	945 157 302	●
	21	<b>HENRIKE KNÖRR</b>	Helsinki, 3 (Salburua)	945 011 684	●
	22	<b>IZARRA</b>	Astronomoak kalea, 19 (Santa Luzia)	945 253 352	●
	23	<b>KATAGORRI</b>	Praga hiribidea, 34 (Salburua)	945 336 767	●
	24	<b>SALBURUA</b>	Erroma hiribidea, 2 (Salburua)	945 335 389	●

# Eskaera izena emateko epe orokorrean aurkeztuz gero

Eskaera horiek eskolan irailean, ikasturte-hasierarekin batera, hasteko kudeatuko dira.

## 1. IZENA EMATEKO EPEA (eskaera eta dokumentazioa aurkezteko epea): **2022ko apirilaren 11tik maiatzaren gra.**

2022ko maiatzaren 4tik 13ra bitartean jaiotako haurrek 2022ko maiatzaren 18ra arte (egun hori barne) eman ahal izango dute izena.

Epe horretan aurkeztutako agiriak soilik hartuko dira kontuan. Hori dela eta, epea ixten denean, ez da beste agiririk onartuko.

Baremazioa egin ondoren, eskaerak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, eta plaza hutsik dagoen eskatutako lehenengo eskolan esleituko zaizue plaza.

## 2. BEHIN-BEHINEKO ONARPEN- ETA ITXAROTE-ZERRENDAK: **2022ko ekainaren 3a.**

Behin-behineko zerrendetan honako hauek zehaztuko dira: haurrari zer kuota-tartea dagokion eta haurra zer eskolatan onartu den; itxarote-zerrendan badago, zer egoeratan dagoen azalduko zaio.

Eskabideak aurkezteko tokietan, Vitoria-Gasteizko titulartasun publikoko Haur Eskoletan eta udal webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza](http://www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza)) argitaratuko dira zerrendak.

## 3. ERREKLAMAZIOETARAKO EPEA: **2022ko ekainaren 3tik 8ra.**

Zuen erreklamazioak idatziz egin ditzakezue, eta eskabideak entregatutako tokietan aurkeztu.

Epe honen barnean, **ez da onartuko izena emateko epean aurkeztu ez den dokumentaziorik**. Beraz, aukeraketa-prozesuan okerren bat edo hutsegiteren bat izan dela adierazten duten erreklamazioak soilik onartuko dira.

## 4. BEHIN BETIKO ZERRENDAK: **2022ko ekainaren 20a.**

Erreklamazioetarako epea bukatu ondoren, gomendatzen dizuegu **behin betiko zerrendak berrikustea**, aldaketak egon diren.

## 5. MATRIKULAZIORAKO EPEA: **2022ko ekainaren 20tik 24ra.**

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzue familia guztiek esleitu zaizuen eskolan:

- Haurraren bi argazki, agiri-tamainakoak.
- Txertaketa-txartelaren fotokopia.
- Osasun-txartelaren fotokopia.
- Medikuaren txostena, haurrak osasun-arazoak, alergiak edota elikadura-intolerantziak dituenen.





- Zuen ustez haurren eskolatzean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei buruzko dokumentazioa, banaketa bat edo dibortzio bat dagoenean edo izatezko bikotearen bizikidetzako egoera amaitzen denean.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztagiria, Udalaren Haur Eskolen kasuan soilik eta hala badagokio(\*)).

(\*) Udalaren Haur Eskoletan, matrikula egiten denean, kuota bat ordaindu behar da aurretiaz. Haurra eskolan hasten den hileko kuota ordaintzeko edo, hala badagokio, zati bat ordaintzeko zuzenduko da kuota hori. Ez dute matrikularik ordainduko urteko familia-errenta 18.000 eurotik beherakoa duten familiek, ez eta 2020an jaiotako seme-alabak dituztenek ere.

Matrikula ordaintzeko, "ordainketa-agindua" eskuratu behar da Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan edo udal webgunean. Bulego horietan ordain dezakezue matrikula, edo udal webgunearen edo finantza-erakunde laguntzaileen bidez ere egin dezakezue ordainketa.

## Kontuan izan, halaber, honako alderdi hauek ere:

Esleitutako eskolako plazari uko egiten badiozue edota matrikula zehaztutako epe horretan egiten ez bada, zuen eskaera indarrrik gabe geratuko da.

Eskola-plaza bat berriz lortu nahi baduzue, idatziz egin beharko duzue eskaera, sarrera-data berriarekin, eta Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan aurkeztu.

## Hutsik geratutako lekuen kudeaketa eta itxarote-zerrenda

Matrikulazio-prozesua amaitzen denean lekuren batzuk hutsik geratu bada, eskolan lekurik lortu ez duten eta itxarote-zerrendan dauden haurren familiei eskainiko zaizkie leku horiek. Puntuazio-ordena zehatzari jarraituz eta hautatutako eskolaren edo eskolen arabera egingo da eskaintza.

Prozesu hori amaitutakoan, Vitoria-Gasteizko Haur Eskola publiko guztietan hutsik dauden lekuen berri emango dizuegu oraindik itxarote-zerrendan zaudeten familiei, eta eskatutako eskolan ez bada ere, beste batean sartzeko aukera eskainiko dizuegu.

Eskatutako eskolan edo eskoletan ez, baizik eta beste batean lekua eskaini denean, leku hori ez onartzeak ez du inolako ondoriorik ekarriko, eta, beraz, zuen seme-alabek itxarote-zerrendan jarraituko dute eta lortutako puntuazioari eutsiko diote, eskatutako eskolan edo eskoletan leku bat sortzeko zain.

# Eskaera izena emateko epe orokorra bukatu ondoren aurkeztuz gero

Izena emateko epe orokorra bukatu ondoren, hutsik dauden plazak eskatzeko **epea etengabe egongo da irekita** ikasturtean zehar.

**Eskaerak sarrera-ordenaren arabera izapidetuko dira eta ez da baremorik egongo.**

- **MAIATZAREN 10ETIK EKAINAREN 30ERA ARTE** (eta maiatzaren 19tik ekainaren 30era arte, maiatzaren 4tik 13ra jaiotako haurrentzat) **AURKEZTUTAKO ESKAERAK** eskolan irailean, ikasturtearekin batera, hasteko izapidetuko dira.
- **UZTAILAREN 1ETIK ABUZTUAREN 31RA AURKEZTUTAKO ESKAERAK** irailaren 1ean izapidetuko dira, bakoitzaren sarrera-ordena errespetatuz, eta **irailaren 1etik 10 egun natural eta gehienez hilabete bat pasa ondoren hasiko dira eskolan.**
- **IRAILAREN 1ETIK AURRERA AURKEZTUTAKO ESKAERAK** honako irizpide hauen arabera izapidetuko dira:
  - » Eskaera-orrian agertzen den eskolatzearen hasiera-data baino 10 egun natural lehenago gutxienez aurkeztu beharko dira. Gutxieneko epe hori errespetatzen ez bada, hasiera-data atzeratu egingo da 10 egun naturalak bete arte, eskaera aurkeztu denetik hasita.



- » Haurrak eskolan hasi ahal izango dira eskaera aurkeztu dutenetik 10 egun natural igarotakoan, eta epea ezin izango da izan hilabete batekoa baino luzeagoa. Ez da onartuko hilabetetik gorako epea igaro ondoren hasi nahi duten haurren eskaerarik.

## Kontuan izan, halaber, honako alderdi hauek ere:

Lekua lortu duten haurren familiei bakarrik deituko zaie.

Eskatu duzuen leku bati uko egiten badiozue, zuen eskaera indarrik gabe geratuko da. Lekua berriro eskatu nahi baduzue, eskaera idatziz egin beharko duzue, sarrera-data berriarekin, eta Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan aurkeztu.

Eskatutako eskolan edo eskoletan plazarik lortu ez duten haurrek posizioari eutsiko diote (eskaeraren sarrera-dataren arabera), prozesu orokorrean plazarik lortu ez duten haurren atzean.

Oro har, Udalaren Haur Eskoletan ez da hutsik geratutako lekurik eskainiko ikasturtearen azken hiruhilekoan.

Haurra 2023. urteko urtarrilean edo otsailean jaiotzen bada, Haurreskolak Partzuergoaren Haur Eskoletan soilik egin ahal izango duzue eskaera.





# Eskaera-orria

Eskaera-orri bakarra aurkeztu behar duzue seme-alaba bakoitzeko. **Beharrezkoa da datu guztiak betetzea eta eskaria sinatzea.**

## 1 Eskatutako eskola edo eskolak

Gehienez ere 5 eskola jar daitezke, lehentasunezko ordenan.

## 2 Hasiera-data

- Epe orokorrean aurkeztutako eskariak eta maiatzaren 10etik ekainaren 30era aurkeztutakoek hasiera data hau izango dute: ***“irailean, ikasturtearen hasierarekin batera”***.
- Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra aurkeztutako eskaerei dagokienez, hasiera-data irailaren 1etik gutxienez 10 egun natural eta gehienez hilabete bat pasata izango da.
- 2022ko irailaren 1etik aurrera aurkeztutako eskabideei dagokienez, hasiera-data gutxienez 10 egun natural eta gehienez hilabete bat pasata izango da, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

## 3 Haurraren datuak

- Osasun-txartela: haurraren behin-behineko edo behin betiko txartelaren zortzi digituak adierazi behar dituzue. Halakorik izan ezean, adierazi eskaera-orrian lehenengo agertzen den gurasoaren edo legezko tutorearen NAN edo AIZ zenbakia.
- Haurraren datu pertsonalak: datu guztiak bete behar dituzue.
- Familia-unitateko haurraren adin txikiko anai-arreben kopurua.

## 4 Amaren, aitaren edo legezko tutoreen datuak

- Gurasoei edo legezko tutoreei buruzko datu guztiak betetzea beharrezkoa.
- Guk zuen errentari eta lan-egoerari buruzko datuak ofizios egiaztatzea nahi baduzue, eskaera-orriko dagokion hutsunean sinatu behar duzue.

## 5 Bankuko kontua

Kuotak ordaintzeko erabili nahi duzuen bankuko kontuaren IBAN kodea eta 20 digituak adierazi behar dituzue, bai eta kontuaren titulartasuna ere. Informazio hori honela justifikatu behar duzue:

- Zuen banku-erakundeak eskaera-orrian zigelua jarriz.
- Edo banku-erakundearen emandako ziurtagiria aurkeztuz.

## 6 Eskabidea sinatzea

**Nahitaezkoa** da eskabidea sinatzea, eta, sinadura horren bidez, eskabidean eta aurkeztutako agirietan ageri diren datuak egiazkoak direla aitortzen duzue.



**1. ESKOLAK (nahi direnak lehentasun hurrenkeran adierazi) - ESCUELAS (indique SOLO las que interesen por orden de prioridad)**

1.	2.	3.	4.	5.
----	----	----	----	----

**2. HASIERA-DATA – FECHA DE INICIO .....**

**3. HAURRAREN DATUAK - DATOS DE LA NIÑA O NIÑO**



Osasun txartelaren zenbakia - Nº de tarjeta sanitaria

Deiturak – Apellidos ..... Izena – Nombre .....

Sexua – Sexo E / M  G / V  Jaiotza-data – Fecha de nacimiento ..... / ..... / .....

Helbidea – Domicilio ..... P.K. – C.P. .... Herria – Municipio .....

Jaiotza-herria – País de nacimiento ..... Jaiotza-probintzia – Provincia de nacimiento .....

Jaiotza-udala – Municipio de nacimiento ..... Nazionalitatea – Nacionalidad .....

Hizkuntza nagusia – Idioma principal ..... Harremanetarako hizkuntza – Idioma de correspondencia .....

Teléfonoak – Teléfonos ..... Helbide elektronikoa – Dirección electrónica .....

Haurraren adin txikioki anai-arreben kopurua – Número de hermanas y/o hermanos menores de edad de la niña o niño .....

Aldetz aurretik eskolan matriculatu dauden anai-arrebeekin batera egongo da? - ¿Coincidirá con alguna hermana o hermano ya matriculado en la escuela?

Ez – No  Bai – Sí  Izen-deiturak – Nombre y apellidos .....

Amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako eskolan lan egiten du? - ¿La madre, padre, tutora o tutor legal trabaja en la escuela solicitada?

Ez – No  Bai – Sí  Izen-deiturak – Nombre y apellidos .....

Arreta bereziarik behar du? - ¿Necesita atenciones especiales? Ez – No  Bai – Sí

**4. AMAREN, AITAREN EDO LEGEZKO TUTOREEN DATUAK – DATOS DE LA MADRE, PADRE, TUTORA O TUTOR LEGAL**

<p><b>A. Izen-deiturak – Nombre y apellidos</b> .....</p> <p>Jaiotza-data – Fecha de nacimiento ..... / ..... / .....</p> <p>Sexua – Sexo E / M <input type="checkbox"/> G / V <input type="checkbox"/></p> <p>NAN edo AIZ – DNI o NIE .....</p> <p>Helbidea – Dirección .....</p> <p>Ahaidetasuna – Parentesco .....</p> <p>Hizkuntza nagusia – Idioma principal .....</p> <p>Harremanetarako hizkuntza – Idioma de correspondencia .....</p> <p>Nazionalitatea – Nacionalidad .....</p> <p>Teléfonoa – Teléfono .....</p> <p>E-mail .....</p>	<p><b>B. Izen-deiturak – Nombre y apellidos</b> .....</p> <p>Jaiotza-data – Fecha de nacimiento ..... / ..... / .....</p> <p>Sexua – Sexo E / M <input type="checkbox"/> G / V <input type="checkbox"/></p> <p>NAN edo AIZ – DNI o NIE .....</p> <p>Helbidea – Dirección .....</p> <p>Ahaidetasuna – Parentesco .....</p> <p>Hizkuntza nagusia – Idioma principal .....</p> <p>Harremanetarako hizkuntza – Idioma de correspondencia .....</p> <p>Nazionalitatea – Nacionalidad .....</p> <p>Teléfonoa – Teléfono .....</p> <p>E-mail .....</p>
---	---

A. Sinadura – Firma  Nire sinaduraren bidez, bainema ematen dut Udaleko Hizkuntza Zerbitzuak beharrezko informazio eskura dezan, hala zuzenean nola bide telematikoen bidez. Arabako Foru Ogasunarengandik eta Gizarte Seguritzaren Diruzantza Orkondearengandik, eskabide honi dagokion datuak tramitatu eta egiaztatzea. Con mi firma, autorizo al Servicio Municipal de Educación para que obtenga la información necesaria para la tramitación y comprobación de los datos relativos a esta solicitud, directamente o por medios telemáticos, de la Hacienda Foral de Álava y de la Tesorería General de la Seguridad Social.

B. Sinadura – Firma

**5.ESKOLAN BAZKALDUKO DU? – ¿COMERÁ EN LA ESCUELA? BAI – SÍ  EZ – NO**

**6.BANKETXEAREN BAIMENA – AUTORIZACIÓN BANCARIA**

Kontuaren jabea – Titular de la cuenta ..... NAN edo AIZ – DNI o NIE .....

Banketxearen Zigila Sello del banco	IBAN	Erakundearen kodea Código de la entidad	Sukurtsailaren kodea Código de la sucursal	Kontrol-kodea Código de control	Kontu korrontearen kodea Código de cuenta
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Amak, aitak edo legezko tutoreak adierazten du egiazkoak direla eskabide honetan eta abikritutako agirietan jasotako datuak – La madre, padre, tutora o tutor legal declara que son ciertos los datos que hacen constar en la presente solicitud y documentación.

**Sinadura – Firma**

Izena emateko orria sinatu baino lehen, inazkeri erortzen beste aldatu dagoen datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa.

Antes de firmar la solicitud, debe leer la información sobre el tratamiento de datos personales que se presenta en el reverso de la hoja

# Eskaera-orria eta dokumentazioa aurkezteko tokiak

Bai irailan hasteko, bai 2022-2023 ikasturtean zehar, izena emateko:

## Aurkezteko tokiak:

- Online: Vitoria-Gasteizko Udalak egoitza elektronikoan ezarritako lekuan beteko da eskaera-orria. Horretarako, **identifikazio digitaleko ziurtagiri bat** behar da (NAN elektronikoa, BAKQ...).
- Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.
- San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan.
- Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

## Eskabide-orriarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa:

**Nahitaez** honako hauek aurkeztu beharko dituzue:

- Familia-liburuan haurra azaltzen den orriaren fotokopia.
- Familia-liburuan ama/aita azaltzen den edo diren orriaren fotokopia.
- Familia-libururik ez baduzue, haurraren Erregistro Zibileko inskripzioaren fotokopia.
- Legezko tutorea edo tutoreak izatearen egiaztatagiria.
- Banketxearen zigilua eskaeran edo banketxeak emandako kontu-zenbakiaren egiaztatagiria.

**Nahi izanez gero**, agiri hauek aurkeztu ahal izango dituzue:

- Familiari buruzko egoeren frogagiri guztiak, kontuan izatea nahi baduzue.
- Beharrezkotzat jotzen duzuen dokumentazio guztia:
  - » Izena emateko eta matrikulatzeko prozesu orokorrean, baremo-prozesuan puntuak lortzeko (15., 16. eta 17. orrialdeak).
  - » 2022-2023 ikasturterako plaza lortuko duten eskaera berri guztiei hileko kuota esleitzeko (19. eta 21. orrialdeak).



# Baremoa

Izena emateko prozesu orokorrean aurkeztutako eskaerei bakarrik aplikatuko zaie (2022ko apirilaren 11tik maiatzaren 9ra eta maiatzaren 18ra arte 2022ko maiatzaren 4tik 13ra jaiotako haurrentzat).

Haurreskolak Partzuergoaren Haur Eskolak izan nahiz Udalaren Haur Eskolak izan, haurrak onartzeko baremo bera erabiliko da eskola guztietan.

Eskaeren baremazioak honako irizpide hauek bete behar ditu:

## A) Familia-unitatearen 2020. urteko errenta

(Zerga-oinarri orokorrak + Aurrezkiaren zerga-oinarriak):

	Puntuak
13.300 € edo gutxiago	1,5
13.300,01 €-tik 39.900 €-ra	1
39.900,01 €-tik 66.500 €-ra	0,5
Eskaera egin duen haurraz gain, adin txikiko beste seme edo alaba bat badago, horietako bakoitzeko.	0,25
<b>Atal honetako gehieneko puntuazioa</b>	<b>3</b>



### Baremorako beharrezkoa den dokumentazioa:

- Familia-unitatea osatzen duzuen eta derrigortuta zaudeten pertsona guztien 2020ko errenta-aitorpena.
  - Araban aurkeztu baduzue eta baimena sinatuz gero, Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du.
  - Zergak Araban ordaintzen ez badituzue edo ofizioz egiaztatzeko baimenik ematen ez badiguzue, 2020ko errenta-aitorpenaren fotokopia gehitu beharko duzue.
- 2020ko errenta-aitorpena egin ez baduzue, 2020ko diru-sarreraren agiria. Eskabide-orrari erantsi beharko diozue.

*Daturik ez badaude edo datuak zehatzak ez badira, zero puntu emango zaio errentaren atalari.*

## B) Helbidea edo lantokia (kontzeptu ez metagarriak):

	Puntuak
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta badago eta haren helbidea bat bada-tor gutxienez amaren, aitaren edota tutoreetako baten helbidearekin.	5
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez badago, baina amak, aitak edota legezko tutoreak Vitoria-Gasteizko udalerrian lan egiten badu (amak, aitak edota legezko tutoreak eskabidean adierazitako eskola horretan lan egiten badu, horregatik ematen den puntuazioa ez da bateragarria honako puntuazio honekin).	2
<b>Atal honetako gehieneko puntuazioa</b>	<b>5</b>



- Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu haurraren eta familia-unitatearen erroldatze-datuak, Vitoria-Gasteizen.
- Haurra ez badago Vitoria-Gasteizen erroldatuta, baina zuen lanpostua Vitoria-Gasteizen baduzue, lanpostuaren helbidea zehaztuko duen enpresaren ziurtagiria aurkeztu behar duzue. Zeuen kontura lan egiten duzuen langileak bazarete, Ekonomia Jardueren Zergako altari dagokion agiria aurkeztu behar duzue.

### C) Eskolan matrikulatutako anai-arrebak, edo eskolan lan egiten duten senideak:

Puntuak

Anaia edo arreba bat, edo gehiago, matrikulatuta daude eskaeran adierazitako eskolan 2021-2022 ikasturtean, eta berriro dute matrikulazioa 2022-2023 ikasturterako.

9

Amak, aitak edo legezko tutoreak eskaeran adierazitako eskolan lan egiten du.

7

**Atal honetako gehieneko puntuazioa** 9



Hezkuntza Zerbitzuak ofizios egiaztatuko du eskolan anai-arreba gehiago matrikulatuta dauden, edo amak, aitak edo legezko tutoreak eskolan lan egiten duen.

### D) Familia ugariak:

Puntuak

Kategoria orokorreko familia ugariak izateagatik.

1

Kategoria bereziko familia ugariak izateagatik.

1,5

**Atal honetako gehieneko puntuazioa** 1,5



**Baremorako beharrezkoa den dokumentazioa:**

- Familia ugariaren txartelaren fotokopia.

### E) Aniztasun funtzionala:

%33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa izateagatik:

Puntuak

Eskaera egin duen haurrarena.

2

Amarena, aitarena, biena, edo legezko tutore batena edo biena, bai eta anai-arrebena ere.

1

**Atal honetako gehieneko puntuazioa** 2



**Baremorako beharrezkoa den dokumentazioa:**

- Eskatzailearen, eta hala dagokionean, familia-unitateko pertsonen desgaitasun-mailaren ziurtagiria, eskumena duen organismoak emandakoa.

### F) Zuen lan-egoera:

Puntuak

Bi gurasoko familiak: guraso biek edo legezko tutore biek lan-merkatuan lan egiten dutenean.

4

Guraso bakarreko familiak: amak, aitak edo legezko tutoreak lan-merkatuan lan egiten duenean.

4

Bi gurasoko familiak: gurasoetako batek edo legezko tutoreetako batek lan-merkatuan lan egiten duenean eta bestea langabezia-egoeran dagoenean (egiaztatu egin behar da).

1

Bi gurasoko familiak: guraso biak edo legezko bi tutoreak langabezia-egoeran daudenean (egiaztatu egin behar da).

1

Guraso bakarreko familiak: ama, aita edo legezko tutorea langabezian da goenean (egiaztatu egin behar da).

1

**Atal honetako gehieneko puntuazioa**

**4**



#### **Baremorako beharrezkoa den dokumentazioa:**

- Lan-egoera aktiboaren frogagiria:
  - Baimena ematen badiguzue eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatzen baduzue edo langabezia saria jasotzen baduzue, ofizioz egiaztatuko dugu.
  - Eskabide-orriari erantsiko diozue, baimenik ematen ez badiguzue. Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatzen ez baduzue edo beste mutualitate edo erregimen bereziren batekoak bazarete.
- Lan Eskaeraren Alta eta Berritze Dokumentu eguneratuaren fotokopia (LEABD), lan gabezia egonez gero.
- Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratua, aldi baterako gabetze egoera onartu bazaizue.
- **Adin txikikoak zaintzeko lan-utzialdian zaudeten pertsonen kasuan:** zuen lanpostuan noiz hasiko zareten erakusten duen enpresaren egiaztagiria. "Lan-egoera aktiboan" zaudetela ulertuko da, baldin eta sartzeko data, gehienez ere, zuen semea edo alaba eskolan hasi eta hilabete bat beranduagokoa bada.
- **Aldi baterako gabetze egoera berezia** onartu bazaizue, behar bezala justifikatzen baduzue (Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratuarekin), eszedentzian daudenen izaera bera izango duzue.
- "Lan-egoera aktiboan" zaudetela ulertuko da lanerako ezintasun iragankor egoeran zaudetenean edota amatasunagatik edota aitatasunagatik baimen-egoeran zaudetenean.

*Daturik ez badaude edo datuak zehatzak ez badira, zero puntu emango zaio lan-egoeraren atalarri.*

## **Berdinketa hausteko irizpideak**

Berdinketaren bat gertatzen bada, aurreko irizpideetan lortutako puntuazio handienaren arabera erabakiko da, puntuaz puntu konparatuz, ondoren adierazten den ordenan.

1. C) atalean puntu gehien lortu dituztenak.
2. B) atalean puntu gehien lortu dituztenak.
3. E) atalean puntu gehien lortu dituztenak.
4. D) atalean puntu gehien lortu dituztenak.
5. A) atalean puntu gehien lortu dituztenak.

Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, ordena alfabetikoaren arabera hartuko da erabakia, Eusko Jaurlaritzak urtero ausaz xede horretarako erabakitzen duen letratik hasita.

Baremazio-prozeduraren ondoren, eskabideak ordenatuko ditugu, lortutako puntuazioaren arabera, eta eskatutako eskoletatik plaza hutsa dagoen lehenengoan esleituko dizuegu plaza.



# Haurreskolak partzuergoa


## Ordutegia



Bi ordutegi mota daude, sarrera eta irteera malguak dituztenak, haurreskolan emandako orduen arabera:

1. **5 orduko ordutegia:** haurrak gehienez 5 ordu egon ahal izango dira haurreskolan.
2. **8 orduko ordutegia:** haurrak 5 ordu baino gehiago eta 8 ordu arte egon ahal izango dira haurreskolan.

## Otorduak:



Matrikulatutako hurrek eskoletan jan ahal izango dute, eta hezitzaileek emango diete jaten.

Janaria etxetik eraman behar duzue, baina catering-zerbitzu bat ere hauta dezakezue, horretarako aukera dagoenean. Cateringaren kudeaketa familiek egin behar duzue, eta kostua ez da hileroko kuotan sartzen.

## Kuotak:

- a. Eskolak 208 egunez egongo dira irekita 2022-2023 ikasturtean. Ikasturte osoaren kostua 11 hileko kuotatan banatuko da, hilabetean zenbat egunez dauden irekita kontuan izan gabe.
- b. Ez da matrikularen kuotarik ordaindu behar. Hileroko kuotak hilabetea amaitu ondoren ordainduko dituzue, banku-helbideratzearen bidez.



c. Hileroko kuota kalkulatzeko, familia-unitatearen errenta estandarizatu hartzen da oinarritzat. Urteko familia-errenta 18.000 eurotik beherakoa duzuen familiek ez duzue hileroko kuota ordaindu behar.

$$\text{Errenta estandarizatu} = \frac{\text{Zerga-oinarri orokorrak} + \text{PFEZen aurrezkiaren zerga-oinarriak}}{\text{Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea}}$$

Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea: familia-unitateari koefiziente hauek aplikatzean lortutako batura da:

- Bi guraso dituen familia-unitateko kide bada eskatzailea: 1,0
- Ezkontidea edo izatezko bikotea: 0,5
- Ezkontiderik edo izatezko bikoterik gabeko eskatzailea, edo genero-indarkeriaren biktima bada: adierazitako koefizienteari 0,3 batuko zaio
- Familia unitatea osatzen duen seme edo alaba bakoitzeko: 0,3
- Familia unitatea osatzen duen kideren batek %33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa badu edo mende-kotasun-egoera aitortua badu: dagokion koefizienteari 0,3 gehituko zaio

Familia-errenta estandarizatu kalkulatzeko, behar bezala egiaztatutako egoerak soilik hartu ahal izango ditugu kontuan. Familia-errentari buruzko 2020ko daturik ez dagoenean, aukeratutako ordutegiari dagokion kuotarik handiena aplikatuko da.

Behin-behineko zerrendetan (2022ko ekainaren 3an argitaratuko dira), zuen kuota-tartea egiaztatzeko aukera izango duzue; tarte hori eskolan egingo duzuen egonaldi osoan aplikatuko da.

d. Laguntza ekonomikoa emateko neurriak:

Zenbait ume batera erditu direnean edo eskolan anai-arreba bat baino gehiago daudenean, hileroko kuota doakoa izango da bigarren anai-arrebentzat eta hurrengoentzat.

e. Hauek dira 2022-2023 ikasturterako kuotak:

Kuota-tartea	18.000 €-tik beherako urteko errenta duten familiek	Egokitze-aldiaren hilabeteko kuota	5 orduko ordutegia	8 orduko ordutegia
0	18.000 € baino gutxiago (irabaziak)	0 €	0 €	0 €
Kuota-tartea	Errenta estandarizatuaren mailak	Egokitze-aldiaren hilabeteko kuota	5 orduko ordutegia	8 orduko ordutegia
1	10.000 € edo gutxiago	82 €	82 €	106 €
2	10.000,01 €-tik 14.999,99 €-ra	140 €	140 €	180 €
3	15.000 € edo gehiago	160 €	160 €	208 €

# Udalaren Haur Eskolak

## Ordutegia



Bi ordutegi mota daude, eta sarrera-irteerak zehaztuta daude.

1. **Ordutegia: 8:00etatik 13:00etara.**

- Sarrera: 8:00etatik 9:30era.
- Irteera: 12:30etik 13:00etara.

2. **Ordutegia, jangela eta siesta barne: 8:00etatik 16:00etara.**

- Sarrera: 8:00etatik 9:30era.
- Irteera: 15:30etik 16:00etara.

## Jangela

8:00etatik 16:00etarako ordutegian soilik eskaintzen da.

1. **2020an eta 2021ean jaiotako haurrek** erabil dezakete jangela.

Janaria eskolan bertan prestatzen da, garaikoak diren eta, hein handian, ziurtagiri ekologikoa daukaten produktuak erabilia. Eskaintzen den menua basala da, aztertuta eta egokituta dago matrikulatuta dauden haurren adinen eta beharren arabera, eta hilabete hotza edo beroa den ere kontuan hartzen da.

Jangelako lekuak esleitzeko orduan, honako egoera hauei ematen diegu lehentasuna:

- Bi gurasoko familiak: aitak eta amak biek edo legezko tutore biek lan-merkatuan lan egiten dutenean.
- Guraso bakarreko familiak: amak, aitak edo legezko tutoreak lan-merkatuan lan egiten duenean.
- Aurrekoen antzeko beste kasu batzuk.

2. **2022an jaiotako haurren** kasuan, hautatutako ordutegia alde batera utzita eta adinari lotutako premiak kontuan hartuta, haurrak eskolan jan beharko duen janaria eraman beharko duzue familiek.



## Kuotak:

1. Matrikula egiterakoan, kuota bat ordaindu behar duzue, aldez aurretik, matrikulagatik (hala badagokio). Haurra eskolan hasten den hileko kuota ordaintzeko edo, hala badagokio, zati bat ordaintzeko zuzenduko da kuota hori. Hileroko gainerako kuotak hilabetea amaitu ondoren ordainduko dituzue, banku-helbideratze bidez.
2. Urteko familia-errenta 18.000 eurotik beherakoa duzuen familiek ez duzue ez matrikula eta ez hileroko kuota ordaindu behar, 8:00etatik 16:00etarako ordutegiko jangela-zerbitzua izan ezik, hilean 33,90 €-koa.
3. 2020an jaiotako haurrak dituzuen familiak, eskola-sistemarekiko antzekotasunagatik, ez duzue ordaindu behar ez matrikula eta ez hileroko kuota, 8:00etatik 13:00etarako ordutegian eta eskola-garaian. 8:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegian, bai eta eskolarik ez dagoen garaian ere (ordutegi batean zein bestean), dagokion kopurua ordaindu behar duzue.
4. Laguntza ekonomikoa emateko neurriak:
  - 4.1. Hainbat seme-alaba badituzue, honako murrizketa hau dagokizue kuotan:
    - Lekua eskatzen duen haurrak bi anai-arreba baditu, ateratzen den kopurutik % 25eko murrizketa egokituko zaio.
    - Hiru anai-arreba baditu, ateratzen den kopurutik % 33ko murrizketa egokituko zaio.
    - Lau anai-arreba baditu, ateratzen den kopurutik % 44ko murrizketa egokituko zaio.
    - Bost anai-arreba baditu, dagokien zati proportzionala murriztuko da.
  - 4.2. Zenbait ume batera erditu, adoptatu edo behin betiko harreran edo adopzioaren aurreko harreran hartu direnean, familia bakoitzak hileko kuota bakarra ordainduko du. Baita bi seme-alaba edo gehiago matrikulatuta dituzuen familien kasuan ere, bikiak, hirukiak eta abar ez izan arren. Neurri horretatik salbuetsita egongo da 2020an eta 2021ean jaiotako haurrentzako jantoki-zerbitzua, 8:00etatik 16:00etara arteko ordutegia hautatzen delarik; 33,90 euro ordaindu beharko dira jantoki-zerbitzuagatik, eta asistentzia doakoa izango da ordutegi horretan. Matrikulatutako seme edo alaba bakoitzarengatik ordaindu beharreko kuotak ezberdinak badira, aukeratutako ordutegiak eta haien adinak direla kausa, familiak kuotarik handiena ordainduko du, eta bigarren matrikula eta gainerakoak doakoak izango dira.
    - 4.1. atalean aurreikusitako kuota-murrizketa aplikatzerakoan, biki, hiruki eta antzeko multzoetako kide ez diren umeak baino ez dira joko ahizpa-arrebatzat edo neba-anaiatzat.
  - 4.3. Interesdunarentzat onuragarrien den irizpidea baliatuko da kasu horietan guztietan (4.1. eta 4.2. puntuak).

5. Zuen seme-alabak Udalaren Haur Eskolan matrikulatu ondoren, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen ikasketa-laguntzak eska ditzakezue.

6. Hauek dira 2022-2023 ikasturterako kuotak:

**2020an, 2021ean eta 2022an jaiotako haurrak, 18.000 eurotik beherako urteko errenta duten familietakoak:**

Matrikula-kuota		Eskolan hasitako hilabetea			Hileroko kuota		
8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara 2020 eta 2021	2022	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara 2020 eta 2021	2022
0 €	0 €	0 €	33,90 €	0 €	0 €	33,90 €	0 €

**2020an jaiotako haurrak:**

Matrikula-kuota		Eskolan hasitako hilabetea		Hileroko kuota (eskola-garaian)		Gabonak, Aste Santua eta uda
8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	Dagokion kuota
0 €	0 €	0 €	42,40 €	0 €	84,80 €	

**2021ean jaiotako haurrak:**

Matrikula-kuota		Eskolan hasitako hilabetea		Hileroko kuota	
8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara
84,80 €	84,80 €	0 €	42,40 €	169,90 €	254,70 €

**2022an jaiotako haurrak:**

Matrikula-kuota		Eskolan hasitako hilabetea		Hileroko kuota	
8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara	8:00etatik 13:00etara	8:00etatik 16:00etara
84,80 €	84,80 €	0 €	0 €	169,90 €	220,80 €



Curso 2022-2023  
**Matriculación en las  
Escuelas Infantiles del  
Consortio Haurreskolak  
y en las Escuelas  
Infantiles Municipales,  
en Vitoria-Gasteiz**

**Niñas y niños nacidos en 2020, 2021 y 2022**

# Índice

Características generales	5
Localización y contacto	7
Si presentáis la solicitud en el plazo general de inscripción	8
Si presentáis la solicitud finalizado el plazo general de inscripción	10
Solicitud de inscripción	12
Lugares de presentación del impreso de la solicitud y la documentación	14
Baremo	15
Consortio Haurreskolak	18
Escuelas Infantiles Municipales	20

**REALIZA:**

Consortio Haurreskolak / Gobierno Vasco y Servicio de Educación / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

**DISEÑO GRÁFICO Y MAQUETACIÓN:**


La Debackle S.L.

**IMPRIME:**

Héctor Soluciones Gráficas

**D.L.:** VI 134-2021

[www.vitoria-gasteiz.org/educacion](http://www.vitoria-gasteiz.org/educacion)



En este folleto se ofrece información sobre el funcionamiento de las Escuelas Infantiles de titularidad pública de Vitoria-Gasteiz, las condiciones de acceso y el procedimiento de matriculación para el curso 2022-2023, así como información sobre las cuotas correspondientes a cada caso.

No obstante, debido a la **crisis sanitaria producida por el SARS-CoV-2**, y a las medidas que se adopten en cada momento para reducir su transmisión, puede que esta información se vea afectada y sea necesario modificar algunos o varios aspectos que se detallan en este folleto.

## **Charlas informativas:**

Si queréis tener más información sobre el procedimiento de inscripción y matriculación en las Escuelas Infantiles públicas, podréis asistir a las siguientes charlas informativas:

- Jueves, 7 de abril de 2022, a las 18:30 horas, en el Salón de Actos del Centro Cívico Salburua.
- Lunes, 11 de abril de 2022, a las 18:30 horas, en el Salón de Actos del Centro Cívico Aldabe.

Ambas charlas contarán con Intérprete de Lengua de Signos.

Además, tendréis disponible toda la información en el espacio web educativo: [www.vitoria-gasteiz.org/educacion](http://www.vitoria-gasteiz.org/educacion)

El Servicio de Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz pone también a vuestra disposición la dirección de correo electrónico [eskolahh@vitoria-gasteiz.org](mailto:eskolahh@vitoria-gasteiz.org) para cualquier consulta.





# Características generales

En Vitoria-Gasteiz, conforman la oferta de las Escuelas Infantiles de titularidad pública:

**19**  
**Escuelas del Consorcio Haurreskolak:**  
para niñas y niños nacidos en **2021** y **2022**.

**5**  
**Escuelas Infantiles Municipales:**  
para niñas y niños nacidos en **2020, 2021 y 2022**.

Para empezar en la escuela, las niñas y niños nacidos en 2022 habrán de tener 16 semanas cumplidas.



## Calendario y horario:

Tanto las Escuelas del Consorcio Haurreskolak como las Escuelas Municipales permanecerán abiertas **desde septiembre de 2022 hasta julio de 2023**.

Las niñas y los niños podrán permanecer en la escuela hasta un máximo de ocho horas.


## Inicio en la escuela:

